

# Istripu-Asegurua

## Aseguru-produktuari buruzko informazio-dokumentua

BBVA ALLIANZ SEGUROS Y REASEGUROS, S.A., helbide soziala Espainian duena  
(klabea: DGSFP C-0807)

Produktua: Seguro ILT Autónomos BBVA Allianz

Produktuaren kontratu aurreko eta kontratuzko informazio osoa beste dokumentu batzuetan ematen da.

### Zertan datzate mota honetako aseguruak?

Aseguruaren xedea baja medikoko egoeran zaudenean eta zure jarduera, Autonomo edo Elkargo bateko kide Profesional Liberal gisa, gauzatu ezin duzunean diru-sarreren murrizpena estaltzea da.

Produktuak hiru kontratazio-modalitate dauzka; hirurek ere estaldura berberak dauzkate, baina aseguraturako kapitalak desberdinak dira.

Kalte-ordaina aukeratutako produktuaren modalitatearen eta patologia eragileari dagokion kalte-ordainaren egun-kopurua adierazten duen balorazio-taularen arabera ezartzen da. Kalte-ordain hori ordainketa bakar baten bitartez ordainduko da.

Gainera, besteak beste, aseguruak Heriotza eta Ezgaitasun Iraunkorreko eta Absolutuko estaldura ere eskaintzen du, istripurik gertatuz gero.



### Zer asegurutzen da?

- ✓ Istripuak eragindako Aldi baterako Ezgaitasuna: eguneroko kalte-ordainaren ordainketa, aukeratutako modalitatearen arabera, istripuaren eraginez, aldi baterako bere jarduera profesionala gauzatzeko ezinduta geratuz gero.
- ✓ Gaixotasunak eragindako Aldi baterako Ezgaitasuna: eguneroko kalte-ordainaren ordainketa, aukeratutako modalitatearen arabera, gaixotasunaren eraginez, aldi baterako bere jarduera profesionala gauzatzeko ezinduta geratuz gero.
- ✓ Ospitaleratzearengatik eguneroko kalte-ordaina: eguneroko kalte-ordainaren ordainketa, aukeratutako modalitatearen arabera, ospitale batean zauden bitartean, tratamendu medikoa edo kirurgikoa hartzen egoteagatik, gaixotasun zein istripuen kasuan.
- ✓ Istripuak eragindako heriotza: Aseguratuak zure oinordekoei kalte ordaina ordainduko die istripu baten ondorioz hilez gero.
- ✓ Bihotzekoak eragindako heriotza (Laneko istripua): Aseguratuak zure oinordekoei kalte-ordaina ordainduko die bihotzekoak eragindako heriotzaren kasuan, bihotzkoa laneko istripuztat jotzen bada.
- ✓ Istripuak eragindako Ezgaitasun Iraunkor Absolutua: Aseguratuak kalte-ordaina ordainduko dizu, ezgaitasun iraunkor absolutuaren kasuan, egoera fisiko atzeraezina denean, istripu batek eragindakoa eta beti ere inolako lan-harremanik edo jarduera profesionalik egiteko modurik ez baduzu.
- ✓ Berme bakoitzeko aseguraturako zenbatekoa aseguru-kontratuko Baldintza Berezielan agertuko da.



### Zer ez dago aseguraturatuta?

Hona, laburbilduta, salbuespen nagusiak; Informazio Orrian eta Baldintza Orokorretan osorik eskura daukazu.

- ✗ Aseguru-kontratua indarrean sartzen den egunaren aurretik gertatutako gaixotasunaren edo istripuaren ondorioak, horien ondorioak honen indarraldian iraun, agertu edo ezartzen badira ere.
- ✗ Aseguratuak berak nahita eragindako gorabeheren ondorioak bazter geratuko dira Aseguru Kontratuaren indarraldi osoan.
- ✗ Urpeko nabigazioa edo esplorazio-bidaiek praktikatzetik, eta baita honako kirolak zaletu mailan egitetik eratorritako istripuak ere: zaldiketa, eskia lehiaketan, alpinismoa, espeleologia, borroka, boxeoa, borroka-arteak, urperaldiak, aireko kirolak, automobilismoa, motoziklismoa, errugbia eta poloa.
- ✗ Aseguratuaren arduragabekeria eta axolagabekeria larriko ekintza baten ondorioak, baita Aseguratuak delitu-ekintzetan, lehiaketetan, apustuetan, duelu edo liskarretan parte hartzeagatik eratorritakoak ere, beti ere, azken kasu horretan, defentsa legitimoan edo pertsonak edo ondasunak salbatzeko saiakeran ez bada.
- ✗ Estaldura Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoari dagozkion gertakari edo fenomenoengatik, baita Erakunde horrek onartzen ez badu ere, bere Araudian ezarritako arauak, edo istripua edo gaixotasuna gertatzen den egunean indarrean diren xedapenak urratzen direlako.
- ✗ Antsietate-nahasmendu edota depresio-nahasmenduak, fibromialgiak, neke kroniko sindrome eta trauma-ondoko estresa.
- ✗ Bizkarrezurreko prozesuak (zerbikalgiak, dortsalgia, lunbalgiak...), klinikoki eta patologia sortzailea berresten ez duten irudi-frogen bitartez objektibatu gabeko sintoma neurologikorik gabeak.

# Istripu-Asegurua

## Aseguru-produktuari buruzko informazio-dokumentua

BBVA ALLIANZ SEGUROS Y REASEGUROS, S.A., helbide soziala Espainian duena  
(klabea: DGSFP C-0807)

Produktua: Seguro ILT Autónomos BBVA Allianz



### Ba al dago Estaldurari dagokion murrizketarik?

Hona, laburbilduta, murrizketa nagusiak; Informazio Orrian eta Baldintza Orokorretan osorik eskura dauzkazu.

- ! Autonomoa edo Elkargo bateko kide Profesional Liberala izan behar duzu, eta Autonomoen edo egoki den Elkargoaren kuota ordaintzen egon.
- ! Gaixotasunarengatik Aldi baterako Ezgaitasuneko eta gaitxotasunarengatik ospitaleratzeko bermearen estaldurak kontratua hasi eta 6 hilabetera abiaraziko dira, eta 12 hilabetera baja salbuespenetan jasotako prozesu baten eraginez sortu bada, hernia diskal, lunbalgia, dortsalgia, zerbikalgia eta erditze-arriskuarengatik, alegia.
- ! Hernia diskal, lunbalgia, dortsalgia eta zerbikalgia kasuetan, gehieneko estaldura-epea hilabetekoa izango da aseguruaren urtaldi bakoitzeko.
- ! Balorazio-taulan kalte-ordainik eragiten ez duten zenbait patologia daude.
- ! Segidako aldi baterako ezgaitasunen arteko estaldura ezgaitasuna eragin duen arrazoitik hilabete iragandakoan hasiko da, ezberdinak badira, eta 12 hilabete berdinak badira.
- ! Bihotzekoak eragindako Ezgaitasuna edo Heriotza (Laneko istripua) eskumena duen Espainiako erakundeak eman beharko du.
- ! Heriotza istripua gertatzen denetik 12 hilabeteko epean jazo behar da.
- ! Ezgaitasun Absolutua eta Iraunkorra istripua gertatu eta hurrengo 24 hilabeteetan ezarri beharko da.
- ! Istripuak eta gaixotasunak eragindako aldi baterako ezgaitasun-estaldurak bateraezinak eta elkarrekiko baztertzailak dira.



### Non nago estalita?

- ✓ Mundu osoan.



### Zeintzuk dira nire betebeharrak?

- BBVA Allianz Seguros-ek eskatzen dituen galdetegiak egia esanez erantzutea, arriskua behar bezala baloratu ahal izateko.
- Aseguruaren salneurriaren aldi behingo ordainketa egitea.
- Istripua edo gaixotasuna gertatuz gero, BBVA Allianz Seguros-i 7 eguneko epean jakinaraztea eta hura egiaztatzen duen dokumentazioa helaraztea, espedienteak behar bezala tramitatu ahal izateko.
- BBVA Allianz Seguros-i zure datu pertsonalen aldaketan berri ematea.
- Autonomoa edo Elkargo bateko kide Profesional Liberal izateari utziz gero BBVA Allianz Seguros-i jakinaraztea.



### Noiz eta nola egin behar ditut ordainketak?

- Aseguruaren ordainagiria zuk adierazten diguzun bankuko kontuan helbideratuko dugu.
- Ordainketa-aukera hauen artean hautatu ahal izango duzu: hilean behin, hiru hilean behin, sei hilean behin edo urtean behin.

# Istripu-Asegurua

## Aseguru-produktuari buruzko informazio-dokumentua

BBVA ALLIANZ SEGUROS Y REASEGUROS, S.A., helbide soziala Espainian duena  
(klabea: DGSFP C-0807)

Produktua: Seguro ILT Autónomos BBVA Allianz



### Noiz hasi eta amaitzen da estaldura?

Kontratua hasierako datako 00:00etan indarrean sartuko da indarrean eta urtebeteko iraupena du. Automatikoki berrituko da, urtero, zuk edo BBVA Allianz Seguros-ek aurkakorik adierazi ezean, eta honako kasuetakoren bat ematen denean amaituko da:

- 65 urte betetzen dituzunean.
- Langile Autonomoa edo Elkargo bateko kide Profesional Liberal izateari uzten diozunean.
- Aseguruaren salneurriaren aldian behingo ordainketa egiten ez baduzu.
- Asegurudunaren Heriotzaren edo Ezgaitasun Iraunkor Absolutuaren kasuan.

Gainera, bihotzekoak eragindako heriotzaren estaldura 60 urte betetakoan amaituko da.



### Nola amai dezaket kontratua?

ILT Autónomos BBVA Allianz Aseguruaren kontratua urtekoa da, nahiz eta epeka ordaindu. Kontratua berritu ez dadila eskatzeko, amaierako data baino hilabete lehenago jakinarazi beharko diguzu, zure NANaren kopia erantsita, edo zure nortasuna egiaztatzen duen beste dokumentu batena, eta BBVA Allianz Seguros-era bidaliz, polizaren Baldintza Orokorretan ageri den helbide sozialera, Calle Ramírez de Arellano, 35 28043 Madrid, edo BBVA Taldeko edozein bulegora joanez, edo helbide elektronikora ([seguros@bbvaallianz.es](mailto:seguros@bbvaallianz.es)). Autonomoa edo Elkargo bateko kide Profesional Liberal izateari uzten badiozu ere jakinarazi beharko diguzu eta kontratua baliogabetuko dugu, kontsumitu gabeko ordainagiriaren zatia itzuliz.